



**BASAURI**  
Udala • Ayuntamiento

**BASAURI UDALERRIAN ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUAREN ARAUDI  
ERREGULATZAILEA**



## AURKIBIDEA

## ZIOEN AZALPENA

## LEHENENGO TITULUA

1. artikulua. Xedea
2. artikulua.- Aplikazio eremua
3. artikulua.- Etxez etxeko laguntza zerbitzuaren definizioa
4. artikulua.- Etxez etxeko zerbitzuen helburuak
5. artikulua.- Printzipio nagusiak
6. artikulua.- Zerbitzuen eta laguntzen aldi bereko erabilera

## BIGAREN TITULUA

### ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA

#### I. KAPITULUA.- ZERBITZUKO ETA ZERBITZUZ KANPOKO JARDUERAK ETA HAIEN EZAUGARRIAK

7. artikulua.- Zerbitzuko eta zerbitzuz kanpoko jarduerak
8. artikulua.- Etxez etxeko laguntza zerbitzuaren ezaugarriak

#### II. KAPITULUA.- ERABILTZAILEAK

9. artikulua.- Erabiltzaileak zehaztea: zerbitzua jasotzeko betekizun orokorrak
  - A) Erabiltzaileak zehaztea
  - B) Zerbitzua jasotzeko betekizun orokorrak
10. artikulua.- Erabiltzaileen eskubideak
11. artikulua.- Erabiltzaileen betebeharrak

#### III. KAPITULUA.- ZERBITZUA JASOTZEKO PROZEDURA

12. artikulua.- Zerbitzuaren eskatzaileen zerrendan sartzeko eskabidea
13. artikulua.- Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko agiriak
14. artikulua.- Izapidetzea
  - Beharrianen ebaluazioa
  - Gizarte Txostena - Proposamena
15. artikulua.- Ebazpena
16. artikulua.- Zerbitzuan onartzea
17. artikulua.- Premiazko egoerak

#### IV. KAPITULUA.- ZERBITZUAREN SEGIMENDUA ETA EGOKITZAPENA

18. artikulua.- Segimendua eta ebaluazioa
19. artikulua.- Egokitzeko aldia

#### V. KAPITULUA.- ZERBITZUA ETEN ETA AMAITZEA

20. artikulua.- Zerbitzua etetea
21. artikulua.- Zerbitzua amaitzea

#### VI. KAPITULUA.- ZERBITZUAREN ARAUBIDE EKONOMIKOA



- 22. artikulua.- Etxez etxeko laguntza zerbitzuaren prezioa
- 23. artikulua.- Finantzaketa
- 24. artikulua.- Zerbitzuaren erabiltzailearen ekarpena

XEDAPEN IRAGANKORRA  
XEDAPEN INDARGABETZAILEA  
LEHENENGO AZKEN XEDAPENA  
BIGARREN AZKEN XEDAPENA

I. ERANSKINA: ZERBITZUA JASOTZEKO LEHENTASUN BAREMOA

II. ERANSKINA: ERABILTZAIILEEN EKARPEN EKONOMIKOAREN BAREMOA

### **ZIOEN AZALPENA**

Gure gizartean bizi-itxaropena luzatzen eta adin-piramidea aldatzen doazenez, adinekoen demografia hazkuntza –garbia eta erlatiboa– etengabea da, eta, gainera, familia babesa ematen duen agente gisa harremanak eta gizarte-zerbitzuen garapena aldatzen ari dira. Aurreko horiek guztioi, baita mendetasun larria dutenei zein gizarte laguntzarik ez dutenei ere, bizitza bete beharrezkoak diren zerbitzuen zehaztapena eragiten ari diren faktoreetako batzuk dira.

Pertsonak ahalik eta denbora gehien geratu nahi dute haien etxeetan, bizi osoan izan duten gizarte-sarea mantenduz eta, beraz, laguntza zerbitzuak aztertu eta zehazteko orduan lehentasuna ematen zaie pertsona hauei, euren etengabeko mendetasunekin. Baina etxeko inguruneak, bertako sarbideek, komunitateko laguntza zerbitzuek eta abarrek eskatzen dute besteen beharra duten edo ezintasunen bat duten pertsonen aukerak, haien bizi garapenean, baldintzatu eta erabakitzen dituzten alderdi asko kontuan hartzea.

Eguneroko bizitzako jarduerak errazten dituzten babes eta laguntzarako bestelako zerbitzu edo elementu batzuk gauzatu zein ez, beharrian ezberdinei egokituta dagoen, txandatan antola daitekeen, premiazko esku-hartzeak hartzen dituen eta zerbitzuaren beharrianaren gaineko aldaketei arin erantzun ahal dien zerbitzu integrala ezin da beste ezerekin ordeztu, baliabide nagusia baita horrelakorik behar duenaren mendetasuna eta ezintasuna etxe eta komunitateko ingurunean zaintzeko. Etxez etxeko laguntza zerbitzua, beraz, sistema honetako oinarritzko zerbitzua da.

Herri Administrazioak horietan parte hartzeko aukera berdintasuna bermatu behar du, beharrian mailen arabera. Era berean, erabiltzaileak bertan parte hartzeko maila ekonomikoa ere zehaztu behar du, bere diru sarrerak kontuan hartuta. Horrekin batera, zerbitzuaren eta horretan dituzten eskubideen eremu argia eskaini behar die herritarrei. Hori guztia indarrean dauden arauak oinarritzat hartuta; eta zehatzago esanda, honako hauek oinarritzat hartuta, hain zuzen ere: 12/2008 Legea, abenduaren



5ekoa, Gizarte Zerbitzuena; 155/2001 Dekretua, uztailaren 30ekoa, gizarte zerbitzuen alorreko egitekoak zehazteko dena eta 39/2006 Legea, abenduaren 14koa, mendetasun-egoeran dauden pertsonen autonomia pertsonala sustatzeari eta haiek zaintzeari buruzkoa, eta hori garatzeko araudia.

Araudi honek hori guztia azaldu behar du, onuradun izan nahi duten pertsonen definizio elementu argiak, eragingarriak eta beren eskubide eta betebeharrak ulertzen laguntzeko modukoak eskainiz.

Nolanahi ere, etxez etxeko laguntza zerbitzuaren araudi honekin ez da agortuko administrazio honek pertsonen laguntzeko beste zerbitzu batzuk jartzeko bidea, baldin eta beste zerbitzu horiek pertsonak eta haien beharrak doitzeko bide berritzaileak badira, dela metodologiagatik, dela finantzabidearen alderditik, dela zerbitzua jasotzen duen pertsonak hornidura modulatzeko orduan parte hartze aktiboa izateagatik, betiere dagokion organo aginpidedunaren oniritzia badute.



## **LEHENENGO TITULUA**

### 1. artikulua.- Xedea

Araudi honen xedea Basauri udalerriko etxez etxeko laguntza zerbitzua arautzea da.

### 2. artikulua.- Aplikazio eremua

Araudi honetan arautzen den zerbitzua Basauri udal mugartean emango da, udalek gizarte zerbitzuen arloan dituzten eskumenen eta besteen beharra duten adinekoei zerbitzua emateko Bizkaiko Foru Aldundiarekin izenpetutako hitzarmenen baitan.

### 3. artikulua.- Etxez etxeko laguntza zerbitzuaren definizioa

Etxez etxeko laguntza zerbitzua, zerbitzu soziala, integrala, balio anitzekoa eta komunitarioa da, eguneroko jarduerak egiteko beren kasa baliatzeko arazoak dituzten familia edota pertsonentzat da, eta beren bizi kalitatea hobetzeko helburua du, bakoitzari bere prebentzio, asistentzia edota birgaitze programa aplikatuta, eginkizun nagusiak etxeko laguntza eta norbere zainketa izango direla, pertsonak etxean jarraitu dezaten lagunduz.

### 4. artikulua.- Etxez etxeko zerbitzuen helburuak

Honakoak izango dira zerbitzu hauen helburuak:

- Autonomia galtzeari aurrea hartzea edota autonomia galtzea konpentsatzea. Horretarako, eguneroko jarduerak edota etxeko ingurunea bizitzeko baldintza egokietan mantentzeko jarduerak egingo dira.
- Arretarako sare naturala osatzen duten zainzaileei laguntza ematea.
- Erabiltzaileak beren komunitatean integra daitezen bultzatzea eta bakartze egoerak saihestea.
- Bizikidetzaren giroa hobetzea. Horretarako arriskuren bat sor dezaketen egoerak saihesteko esku hartuko da.
- Beste zerbitzu batzuen esku-hartzea eska dezakeen beharrezan bat sortzen denean, beharrezan horiek antzemateko elementutzat jardutea.
- Pertsonak bere etxean bizitzen jarrai dezan erraztea.
- Onuradunen ahalmenen garapenari laguntzea.

### 5. artikulua.- Printzipio nagusiak

Zerbitzuak emateko, honako printzipio nagusi hauei jarraituko zaie:

- Normalizazio eta gizarteratze printzipioa: zerbitzua erabiltzaileen etxe, familia, gizarte eta kultur eremuan emango da, ahal den neurrian jadanik dauden baliabide normalizatuak erabilita.
- Autonomia printzipioa: ahalik eta gehien sustatu beharko da erabiltzailearen autonomia.
- Partaidetza printzipioa: pertsonak arreta planean parte hartzea sustatu beharko da.



- Osotasun printzipioa: emango den zerbitzuak osoa izan beharko du, balio anitzeko laguntza eskaini beharko da erabiltzailearen beharrian guztiak estaltzeko.
- Profesionaltasun printzipioa: bai zerbitzuaren arduradunek, bai zuzeneko arreta ematen duten langileek dagozkien lanbide-gaitasunak izan beharko dituzte.
- Indibidualizazio printzipioa: zerbitzu honen onuradun guztiei euren egoeraren balorazioa eta diagnostikoa egin eta gero, euren beharritzanean egokitutako arreta plana izan ahalko dute.
- Osagarritasun printzipioa: zerbitzu hau beste laguntza tekniko, ekonomiko edo teknologiko batzuekin batera antolatu ahal izango da.
- Aurrea hartzeko printzipioa: zerbitzua ematean aurrea hartzeko printzipioa hartu beharko da kontuan, erabiltzaileak okerrera egiteari eta, ondorioz, erakunderen batean sartzeari aurrea hartzeko.
- Barneratze printzipioa: zerbitzua ematean norbanakoa edota familia komunitatean barneratzeko ekintzak aurrez ikus daitezke.

## 6. artikulua.- Zerbitzuen eta laguntzen aldi bereko erabilera

1) Etxez etxeko laguntza zerbitzua bateragarria izango da mendetasunari aurrea hartzeko, autonomia sustatzeko eta laguntzaileei laguntzeko zerbitzuekin, telelaguntza zerbitzuarekin, eguneko edo gaueko zentroko zerbitzuarekin, aldi baterako edo familiek atseden hartzeko egoitza zerbitzuarekin, edo, hala badagokio, aurreko zerbitzu horiei loturiko laguntza ekonomikoarekin, araudi honetan ezarri bezala.

Halaber, etxez etxeko laguntza zerbitzua bateragarria izango da, araudi honetan ezarri bezala, Mendetasun-egoeran dauden pertsonen autonomia pertsonala sustatzeari eta haiek zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legean aurreikusitako familia ingurunean zainketak egiteko laguntza ekonomikoarekin.

2) Etxez etxeko laguntza zerbitzua Mendetasun-egoeran dauden pertsonen autonomia pertsonala sustatzeari eta haiek zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legean aurreikusitako familia ingurunean zainketak egiteko laguntza ekonomikoarekin edo eguneko edo gaueko zentroko zerbitzuarekin edo zerbitzu horiei loturiko laguntza ekonomikoarekin bateragarria izango den kasuetan, etxez etxeko laguntza zerbitzuaren maiztasuna gutxitu egingo da, hala badagokio. Hortaz, zerbitzu hori gehienez 33 orduz hilean emango da, eta araudi honen 7-1-B) artikuluan azaldutako norbere zainketako jardueretarako bakar-bakarrik izango da, bai eta otorduak prestatzeko eta eguneko zentrorako garraioaren geltokira/geltokitik laguntzeko ere.

3) Halaber, etxez etxeko laguntza zerbitzua ez da bateragarria izango behin betiko egonaldietarako egoitza zerbitzuarekin edo aurreko zerbitzu horri loturiko laguntzarekin, etxebizitza komunitarioetako edo beste ostatu alternatiboetako egonaldiarekin eta Mendetasun egoeran dauden pertsonen autonomia pertsonala sustatzeari eta haiek zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legean aurreikusitako pertsonen laguntzeko laguntza ekonomikoarekin.



## **BIGARREN TITULUA. ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA**

### **I. KAPITULUA.- ZERBITZUKO ETA ZERBITZUZ KANPOKO JARDUERAK ETA HAIEN EZAUGARRIAK**

#### **7. artikulua.- Zerbitzuko eta zerbitzuz kanpoko jarduerak**

Etkez etxeko laguntzat hartuko da etxeko laguntzako lanak eta norbere zainketarako lanak, batik bat, onuradunaren etxean egitea, etxeko bizi-kalitatea hobetzeko asmoz.

7.1.- Hain zuzen ere, honako jarduera hauek egongo dira zerbitzu honen barruan:

A) **Etxeko laguntzako jarduerak: laguntza, orientazioa edo zuzenean egitea :**  
Etxeko laguntzako jardueren artean daude eguneroko oinarrizko jarduera hauek egiten laguntzea, edota orientatzea edota zuzenean egitea:

- a) Elikadurari dagokionez:
  - Janaria prestatu.
  - Elikagaiak erosi.
- b) Arropei dagokienez:
  - Etxean arropa garbitu eta eskegi.
  - Arropa gainbegiratu.
  - Arropa ordenatu.
  - Etxean arropa lisatu.
  - Arropa erosi.
- c) Etxebizitza mantentzeari dagokionez:
  - Etxebizitza garbitu eta mantendu.
  - Ohea egin.

B) **Norbere zainketarako jarduerak: laguntza, orientazioa edo zuzenean egitea :**

Erabiltzaileei laguntzeko jardueren artean, eguneroko oinarrizko jarduerak egiten laguntzea, edota orientatzea edota zuzenean egitea dago:

- Norbere garbitasuna, norbere arropa eta oheko arropa aldatzea barne.
- Ohetik jaiki, ohera sartu eta jesarlekutik altxatzen lagundu.
- Janzten eta jaten lagundu.
- Medikuak agindutako ahozko sendagaiak hartzen dituen kontrolatu eta segimendua egin.
- Etxe barruan mugitzen lagundu eta estimulatu.
- Zainketa higieniko-sanataria, etkez etxeko laguntza zerbitzuko langileen espezializazioa beharrezkoa ez denean.
- Familia antolamenduan lagundu.



### C) Beste jarduera osagarri batzuk

Egoera berezietan, zerbitzuaren helburuak lortzeko nahitaezkoztat jotzen diren beste jarduera batzuk egin daitezke:

- Zerbitzu normalizatua ezarri baino lehen, etxeetan garbiketa orokorrak.
- Noizean behingo garbiketa orokorrak.
- Gizarte eta hezkuntza alorreko laguntza.
- Onuradunei etxetik kanpo laguntzea izapideetan, joan-etorrietan eta gizarte zein familia ingurunean parte hartzeko jardueretan: bankuak, medikuak, baliabideak eskatu eta izapidetzea, ikastetxeak, gizarte zentro espezializatueta joateko garraioa.
- Beste zerbitzu batzuk, baldin eta udaleko gizarte zerbitzuek berariaz baimendutakoak badira.

7.2.- Zerbitzutik kanpo honako jarduera hauek geratzen dira:

- Lagun egiteko eta paseatzera joateko zerbitzua, horixe baino eskatu ez bada.
- Etxe berean bizi diren beste senide edo lagun batzuei zuzeneko arreta ematea, udal zerbitzu teknikoan balorazioa kontuan hartuta zerbitzuaren erabiltzailatzat hartu ez badira.
- Etxean laguntzeko jarduerak egitea, horrek zuzenean laguntzen badie etxean bizi diren gainerako pertsonen.
- Osasun arloko jarduerak egitea, horiek egiteko berariazko prestakuntza behar bada.
- Konponketa profesionalak egitea etxean (pintatu, papera jarri...).
- Udalaren zerbitzu teknikoek egindako txostenean aurrez ikusi ez diren gainerako zereginak.

### 8. artikulua.- Etxez etxeko laguntza zerbitzuaren ezaugarriak

Etxez etxeko laguntza zerbitzua etxe partikularretan emango da, onuradunarenean edo bere familiarenean, Basauriko udal mugartearen barruan.

Zerbitzuaren onuraduna senideen etxeetan txandaka egon litekeela kontuan hartuta, etxe batean edo gehiagotan eman ahal izango da zerbitzua, Basauriko udal mugartean badaude betiere, araudi honen 9. artikuluan xedatu bezala.

#### 1) Arreta emateko egunak

Oro har, zerbitzua urteko egun guztietan emango da, astelehenetik ostiralera bitartean.

Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek aurretiaz balorazioa egin eta gero, zerbitzua asteburuetan eta jaiegunetan eskaini ahal izango zaie mendetasun handiko pertsona gisa (III. gradua) sailkatutako lagunei, Mendetasun egoeran dauden pertsonen autonomia pertsonala sustatzeari eta haiek zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legean eta hori garatzeko araudian ezarritakoaren arabera, eta bakar-





bakarrik norbere zainketarako jardueretarako (horrek araudi honen 7-1-B artikuluan daude jasota).

Eusko Jaurlaritzak ofizialki jaieguntzat onartutakoak joko dira jaieguntzat.

## 2) Zerbitzuaren maiztasuna

Onuradun bakoitzaren beharizanen azterketa eginda finkatuko da zerbitzuaren maiztasuna, zerbitzugintzak dituen gehienezko iraupen hauek oinarritzat hartuta:

A) Abenduaren 14ko 39/2006 Legearen arabera, besteen beharra duten pertsona gisa sailkatutako lagunei gehienez hilean ordu kopuru hau esleituko zaie, etxez etxeko laguntza zerbitzuarekin batera beste laguntza edota zerbitzurik jasotzen ez dutenean, araudi honen 6. artikuluan adierazitako kasuetan:

- III. graduako mendetasun handia duten pertsonentzat: 70 ordu hilean.
- II. graduako mendetasun handia duten pertsonentzat: 45 ordu hilean.
- I. graduako mendetasun txikia duten pertsonentzat: 20 ordu hilean.

B) Abenduaren 14ko 39/2006 Legean ezarritakoaren arabera mendetasuna duten pertsona gisa sailkatu ez direnei gehienez hilean 20 orduko zerbitzua emango zaie.

C) Zerbitzua emateko ezarritako denbora-mugei egindako salbuespenak.-

Salbuespenez, eta gizarte-langilearen aurretiazko txosten arrazoitua bitarte, aukera egongo da aurreko ataletan ezarritako zerbitzu-intentsitatea areagotzeko, honako kasu hauetan:

- a) Zerbitzua jasotzen duen pertsonaren egoerak bat-batean okerrera egiten badu (iktusa izatea, erortzea, eta abar), zerbitzuaren intentsitatea areagotu ahal izango da, aldi baterako.
- b) I. graduako mendekotasuna aintzatetsia dutenei (mendekotasun ertaina) eta mendekotasunik aitortuta ez duten eta bakarrik bizi diren 85 urtetik gorakoei zerbitzuaren intentsitatea areagotu ahal izango zaie, gehienez ere, hilean 30 ordura arte.

## 3) Arreta emateko orduak

- Zerbitzuaren ordutegia malgua eta egunekoa izango da, 07:00etatik 22:00etara bitartekoa.
- Etxez etxeko laguntzako ordutegiak libre dauden ordutegien arabekoak, gizarte langileak pertsonen beharizanak kontuan hartuta ezarritako maiztasunaren arabekoak eta artikuluko honen 1) eta 2) paragrafoetan ezarritakoaren arabekoak izango dira.

## II. KAPITULUA.- ERABILTZAILAK



## 9. artikulua.- Erabiltzaileak zehaztea: zerbitzua jasotzeko betekizun orokorrak

### A) Erabiltzaileak zehaztea.

Oro har, honakoa izango da zerbitzu honen erabiltzaileen profila: haien autonomia galdu dutelako, haien ohiko etxebizitzan bizitzen jarraitzeko eguneroko oinarrizko jardueretan (araudi honen 7. artikulua 1. paragrafoan azaldutakoak) aldi baterako edo behin betiko laguntza zerbitzua behar duten pertsona edota familia unitateak. Profil hori araudi honen 14. artikuluan eta I. Eranskinean azaltzen den moduan egiaztatuko da.

Araudi honen ondoreetarako, hauexek osatuko dute familia-unitatea: zerbitzuaren titularrak eta senarrak edo emazteak zein izatezko bikotekideak eta 18 urtera arteko seme-alabek (adin hori barne), edozein kasutan, edo 26 urtera arteko seme-alabek (adin hori barne), baldin eta etxebizitza berebirean bizi badira eta langabezian edo ikasten badabilta, eta ezgaitasunen bat duten seme-alabek (adina edozein dela), gutxienez % 33ko minusbaliotasuna badute, etxebizitza berebirean bizi badira eta ekonomikoki familia-unitatearen mende badaude.

### B) Zerbitzua jasotzeko beharkizun orokorrak.

Eskatzaileek zerbitzua jasotzeko betekizun orokor hauek dituzte:

- Artikulu honen A paragrafoan azaltzen den erabiltzailearen profila bete beharko dute.
- Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrietakoren batean erroldatuta egon beharko dute urtebeteko antzinatasunaz, eta eskabidea aurkeztu aurreko sei hilabeteetan Basauriko udal mugartean erroldatuta egon beharko dute. Lehen aipatutako abenduaren 14ko 39/2006 Legearen arabera besteen beharra duten pertsona gisa sailkatutako lagunen kasuan, horri buruz ezarritakoa betekiko da. Hala ere, aurreko baldintza bete ez arren hainbat udalerritan senideen etxeetan txandaka bizi diren eta erroldatuta dauden udalerrian etxez etxeko laguntza zerbitzuko onuradun diren pertsonak zerbitzua jaso dezakete. Halakoetan, etxez etxeko laguntza jasotzen duela egiaztatzen duen jatorriko udalerriko gizarte zerbitzuen txostena aurkeztu beharko dute.
- Dagokion ekarpena likidatzeko asmoz, gizarte zerbitzuei baimena emango die aitortutako datu ekonomikoak zerga arlokoekin eta gizarte segurantzakoekin egiaztatu eta erkatzeko.

Familia unitatearen barruan zerbitzuaren erabiltzaile izango diren pertsona guztiek zerbitzua jasotzeko beharkizun orokorrak bete beharko dituzte. Eskabidea familia-unitateko pertsona batentzat baino gehiagorentzat egiten bada, kide guztiek bete beharko dituzte zerbitzua jasotzeko baldintzak. Onuradun guztiak ordezkatzeko, zerbitzuaren titular bat izendatuko da; hala ere, araudi honen 21. artikuluan adierazitako kasuren bat gertatzen bada, familia-unitateko beste pertsona onuradun batek hartu ahal izango du ordezkaritza.

Titulartasuna aldatzean berriro baloratu beharko dira beharrianak, gizarte eta familia egoera eta egoera ekonomikoa.

## 10. artikulua.- Onuradunen eskubideak



Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-zerbitzuen erabiltzaileen eta profesionalen eskubide eta betebeharren gutuna eta iradokizunen eta kexen araubidea onetsi zuen apirilaren 6ko 64/2004 Dekretuaren II. kapituluko Lehenengo Atalean ezarritakoaz gain, honako eskubide hauek izango dituzte etxez etxeko zerbitzuen onuradunek:

- Eginkizunen orria edukitzea, zerbitzuaren maiztasuna eta zereginak zein diren jakiteko.
- Zerbitzuaren baldintzak aldatzekotan, aurretiaz jasotzea horren berri.
- Zerbitzua ematen duen laguntzailea aldatzeko edo zerbitzuaren maiztasuna aldatzeko eskatzea, behar bezala arrazoituta.
- Mendetasuna balioztatzeko edota minusbaliotasuna kalifikatzeko eskatzea Bizkaiko Foru Aldundiari.

#### 11. artikulua.- Onuradunen betebeharrak

Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte zerbitzuen erabiltzaileen eta profesionalen eskubide eta betebeharren gutuna eta iradokizunen eta kexen araubidea onetsi zuen apirilaren 6ko 64/2004 Dekretuaren II. kapituluko Bigarren Atalean ezarritakoaz gain, honako betebeharrak izango dituzte etxez etxeko zerbitzuen onuradunek:

- Zerbitzua ematean lagundu eta lankidetzan aritzea, eta zerbitzuan parte hartzen duten profesionalak zuzen eta errespetuz tratatzea.
- Bere gizarte eta ekonomia egoera baloratzeko beharrezko agiriak ematea gizarte zerbitzuetako langileei eta etxebizitzara sartzen uztea, balorazio hori eta segimendu bisitak egin ahal izateko.
- Benetan etxebizitza horretan bizitzea.
- Aurretiaz itundu ez den beste zerbitzurik ez udal ebazpenean azaltzen ez den pertsonentzako arretarik ez eskatzea.
- Esleitutako etxeko lanak eta lan pertsonalak egiteko beharrezko tresna eta materialak eskaintzea etxez etxeko zerbitzua emango duten langileei.
- Bat-batean gertatu diren inguruabar pertsonalen berri, egon diren lekualdaketen berri (horiek zerbitzua etetea eragin badezakete) eta gizarte eta ekonomia egoeran egon diren aldaketa nabarmenen berri ematea aurretiaz udaleko teknikariei, ematen den zerbitzua emateko moduren bati eragiten badie.
- Etxez etxeko langileek eginbeharrak burutzean irregulartasunen bat burutu dutela ikusten badute, gizarte langileari jakinaraztea, baita zerbitzugintzan eragina izan dezaketen gaixotasun kutsakorren berri ematea ere, etxez etxeko laguntza zerbitzuko langileek beharrezko babes neurriak har ditzaten.
- Esleitu zaion prezioa ordaintzea, eman den zerbitzu bakoitzerako ezarritako epean eta, era berean, esleitu diren baina eskatzaileari egotz lekizkiokeen arrazoiengatik egin ez diren zerbitzuak ere ordaintzea.

Honako betebeharren bat betetzen ez bada, zerbitzua eten edo amaituko da, araudi honetan araututako prozeduraren arabera.

### III. KAPITULUA. ZERBITZUA JASOTZEKO PROZEDURA

#### 12. artikulua.- Zerbitzua jasotzeko eskabidea



Etkez etxeko laguntza zerbitzua jasotzeko, interesdunak inprimaki normalizatu orokorra bete beharko du. Inprimakia dagokion organoari igorri beharko dio, eta eskatzaileak sinatu beharko du. Ondoren udalaren sarrera erregistroan aurkeztu beharko du, edo bestela Herri Administrazioen Araubide Juridikoei eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38. artikuluan ezarritako moduren baten bidez.

Prozesuak iraun bitartean, interesdunak edozein momentutan egin dezake atzera eta, hori egin nahi izatekotan, idatziz egin beharko du. Horrenbestez, espedientea artxibatuko da.

### 13. artikulua.- Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko agiriak

Eskatzaileari eta, hala badagokio, familia unitateko gainerako kideei buruzko ondoko agiriak erantsi behar zaizkio eskabideari:

- Pertsona eskatzailearen NANaren edo baliokidea den edozein identifikazio agiriren fotokopia.
- Familia liburua, familia unitatean 18 urtetik beherakoren bat badago.
- Hala badagokio, mendetasunaren balorazio unitateak egindako balioespena.
- Hala badagokio, minusbaliotasunaren ziurtagiria, eskumena duen organo ofizialak emandakoa.
- Familia unitateko kideen errolda ziurtagiria.
- Egoera ekonomikoaren datuak:
  - Pertsona Fisikoen Errentaren gainera Zergaren azken aitopenen fotokopia edo, bestela, aurkeztu behar ez duela ziurtatzen duen agiria, Ogasunak egina.
  - Pentsioen ziurtagiria, horiek ematen dituen erakundeak egina. Mota eta diru-kopurua adierazi behar dira.
  - Erabiltzaileak aurrezki-kartilak, aurrezki-kontuak, bonuak, akzioak, epe finkorako aurrezki-orriak eta abar dituen banku-erakundeetako egoera eguneratuen ziurtagiria.
  - Azken nominaren edo nominen (aldaketak baldin badaude) fotokopia.
  - Prestazio ekonomikoengatik jasotako diru-kopuruen eta beste diru-sarrera batzuen ziurtagiriak.
  - Ezarritako prezioa erakunde eta kontu korrante jakin baten bidez ordainduko da hileroko. Beraz, erakundea nahiz kontu korrontearen zenbakia jakinaraziko dira.
  - Gastu kengarrien frogagiriak (besteak beste, alokairua eta hipoteka kreditua).
- Eskatzaileak bere egoera baloratzetik nahi ez badu, edo ez badu era frogagarrian egiaztatzen, zerbitzuaren kostu osoa ordaintzera behartuta egongo da eta hori nahitaz jaso beharko du dokumentu batean.
- 9.B) artikuluan jasotako egoeretan, etkez etxeko laguntza jasotzen duela egiaztatzen duen jatorriko udalerriko gizarte zerbitzuen txostena aurkeztu beharko du.



- Udaleko gizarte zerbitzuek interesgarriztat jotzen duten beste edozein dokumentazio.

Eskabidearekin batera aurkeztutako agirietan zerbait faltako balitz edo akatsen bat egongo balitz, agindeia egingo zaio eskatzaileari, 10 eguneko epean beharrezko agiriak aurkeztu edo ikusitako akatsak zuzen ditzan; modu berean jakinaraziko zaio hori egin ezean eskabidea bertan behera utzi duela ulertuko dela.

Eskatzaileak, datuak egiaztatu edo biltzeko beharrezko kudeaketak egiteko baimena emango dio udalari. Datu horiek eskatzaileak araudi honetan ezarritako betekizunak betetzen dituen egiaztatze bako bako ez dira erabiliko eta, hala badagokio, zerbitzua finantzatzeko betekizun eta baliabide ekonomikoak egiaztatze bako.

Datuak faltsutzeak eta ezkutatzeko zerbitzuaren eskatzailea izatea galtzea dakar, eskatzaileak izan dezakeen erantzukizunari kalterik egin gabe.

#### 14. artikulua.- Izapidetzea

Erabiltzaileen beharrizanaren ebaluazioa eta txosten soziala nahiz proposamena apirilaren 6ko 64/2004 Dekretuan (9. eta 10. artikuluetan) ezarritako baldintzen eta epeen arabera egingo dira.

##### A) BEHARRIZANEN EBALUAZIOA

- Eskatzailearen etxebizitzari (hala badagokio, etxebizitza ibiltariari) dagokion udaleko gizarte zerbitzuetako gizarte laneko teknikariek egingo dituzte eskabidearen izapidetzea, balorazioa eta ebazpen proposamena.
- Teknikariek aurkeztutako agiriak aztertu eta elkarrizketak, etxerako bisitak eta gainerako izapide egoki guztiak egingo dituzte balorazioa egiteko.

Beharrizanaren ebaluazioa araudi honen 1. Eranskinean ezarritako baremoa oinarritzat hartuta egingo da, eta etxez etxeko laguntza zerbitzua jasotzeko eskatzaileak 100 puntu gutxienez lortu behar ditu baremo horretan. Horietatik 30 puntu gutxienez A) Autonomia pertsonala eta B) Etxeko laguntza ataletan lortu behar dira.

##### B) GIZARTE TXOSTENA - PROPOSAMENA

Udaleko gizarte zerbitzuetako teknikariek nahitaezko gizarte txostena egingo dute eta, bertan, honakoa zehaztu beharko da:

- Zerbitzua jasotzeko eta eskabideak aurkezteko betekizunak betetzen diren.
- Hala badagokio, betekizunetatik salbuetsita egoteko proposamena, arrazoiak azalduta, araudi honen 9-B) artikuluan aurreikusitako kasuan.
- Esku-hartzearen onuradunak, egin beharreko zerbitzu mota, asteko ordu eta egun kopurua, eta proposatutako zerbitzuaren zereginak eta iraupena.
- Hala badagokio, zerbitzu osagarriak emateko proposamena, arrazoiak azalduta.
- Eskatzaileak zerbitzuarengatik ordaindu beharreko prezioa.
- Hala badagokio, zerbitzua ukatzeko proposamena, arrazoiak azalduta.

#### 15. artikulua.- Ebazpena



Eskabidea aztertu eta balioztatutakoan, udaleko organo eskudunari bidaliko zaio, eta arrazoizko ebazpena emango du organo horrek, eskatutako zerbitzua jasotzeko eskabidea onartuz edo ez onartuz.

Gehienez bi hilabeteko epean egin beharko da ebazpena, eskabidea udal erregistroan sartzen denetik aurrera zenbatzen hasita. Epe hori eten egingo da jakinarazpena egin eta bertan adierazitakoa bete bitartean irauten den denborak eskabideak zuzentzea eskatzen badu edo, hori ezean, emandako epea igarotzen bada eta azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 42. artikuluan aurreikusitako kasu aplikagarrietan.

Aurreko atalean aurreikusitako epea igaro eta beren-beregizko ebazpenik eman ez bada, ebazteko beharrari kalterik eragin gabe, eskabidea onartu ez dela ulertu beharko da; horrela, aukerako berraztertze errekurtsoa edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkezteko aukera izango du interesdunak.

Ebazpena baiezkoa izatekotan, honako alderdi hauek azaldu beharko ditu:

- Laguntza emango dela, eta honako gai hauek zehaztu behar dira: Zerbitzu mota, intentsitatea eta kostua, eta onuradunak egin beharreko ekarpen ekonomikoa, edo, hala badagokio, eskabidea itxaron zerrendan sartu dela, aurrekontu gordailu nahikorik ez dagoelako zerbitzua berehala eman ezin denean, indarrean dagoen araudian aurreikusitako kasuetan izan ezik.
- Zerbitzuaren eskatzaileen zerrendaren bitartez antolatzen da zerbitzua esleitzeko lehentasuna, 1. Eranskinean zerbitzua jasotzeko ezarritako lehentasun baremoa aplikatuz eskuratu diren puntuen arabera.
- Etxez etxeko laguntza zerbitzuaren itxaron zerrenda egongo da eskabide guztiei aurre egiteko aurrekontu zuzkidura nahikorik ez dagoenean.
- Zuzenean zerbitzurako onartu ez den pertsonaren batek interesa izatekotan, bere espedientea berrikusteko eskatu ahal izango du egindako balorazioa alda lezakeen inguruabarren bat aldatu denean, behar bezala egiaztatuz.

Ebazpena ezezkoa izatekotan, horretarako arrazoiak azaldu beharko ditu eta, era berean, honako kasuetan eman liteke ezezko ebazpena:

- Araudi honetan azaltzen diren onartzeko betekizunak betetzen ez badira.
- Eskatzaileak berak edota senideen laguntzarekin edota beste baliabide pertsonal batzuekin eskabidea eragin zuten beharizanak behar bezala asetzeko aukera badu.
- Zerbitzua emateko eskumena beste herri administrazioen batena bada, zerbitzuaren izaera edo eskatzailearen egoitza non dagoen kontuan hartuta.
- Zerbitzua emateak erabiltzaileari zein zerbitzua ematen duen langileari arrisku fisiko edota psikikoak eragin diezaiekeela balioztatzen bada.
- Behar bezala arrazoitutako beste arrazoi batzuk.

Ebazpena legeak ezarritako epeetan eta eskatutako formalitateei jarraituz jakinaraziko da. Haren aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa ipini ahal izango da organo eskudunaren aurrean, edo zuzenean egin ahal izango da bere aurka administrazioarekiko auzietako jurisdikzio ordenaren aurrean, legez ezarritako epe eta zehaztapenei jarraituz.

16. artikulua.- Zerbitzuan onartzea



Zerbitzuan onartzeko zerrendako ordenari jarraituko zaio eta, horretarako, guztira eskuratutako puntuak hartuko dira kontuan, eskabidea 1. eranskineko atalen arabera baloratu ostean, baldin eta ordenantza honen 14 A) artikuluan zerbitzua jasotzeko ezarri diren gutxieneko puntuak lortzen badira.

Puntu berdinak lortu dituzten eskabiderik badago, eskabideak sartu ziren daten ordenari jarraituko zaio.

#### 17. artikulua.- Premiazko egoerak

Salbuespen moduan eta muturreko eta premiazko kasuetan (abandonu, babesgabetasun edota tratu txarren egoeretatik sorturikoak) arreta emateko, udaleko gizarte zerbitzuek zerbitzua berehala eman eta hasteko proposa lezakete, eskabidea behar bezala bete eta tramitatuta egon gabe.

Udaleko gizarte zerbitzuek zerbitzua premiazkoa dela jakinaraziko diote zerbitzua ematen duen erakundeari, hala badagokio, eta horrek burutu beharko du.

Etkez etxeko laguntza zerbitzua ezin izango da presako prozeduraren bidez eman, bi hilabetez baino gehiago; izan ere, epe horretan espedientea osorik tramitatu behar da.

Agiriak zerbitzua ematen hasten denetik egutegiko 15 eguneko epean, arrazoitutako kausarik gabe, aurkeztu ezean, zerbitzuan baja emango zaio.

### IV. KAPITULUA. EGOKITZAPENA ETA ZERBITZUAREN SEGIMENDUA

#### 18. artikulua. Segimendua eta ebaluazioa

Gizarte laneko teknikariek etengabeko segimendua egingo dute, zerbitzuak onuradunen beharrezko egokitzen zaizkien ikusteko, eta beharrezkoa izanez gero, kasuan kasuko aldaketak proposatuko dituzte; horrez gain, onuradunekin batera ebaluatuko dute proposatutako helburuak lortu diren.

#### 19. artikulua.- Egokitzeko aldia

Hasi eta hurrengo hiru hilabeteetan, pertsonak zerbitzuaren ezaugarri eta funtzionamendura egokitzeko aldian daudela ulertuko da. Onuradunaren erreferentzia den gizarte laneko teknikariak edota, hala badagokio, zerbitzuak kudeatzen dituzten enpresetako profesionalak uneoro azalduko dizkiote onuradunari sor litezkeen arazoak, eta beharrezko konponbideak bilatuko dituzte, egokitzapena ona izan dadin.

Onuradunarekin batera konponbideak bilatzen saiatu ostean ikusten bada zaila dela erabiltzailea zerbitzuari egokitzea edo zerbitzua erabiltzaileari egokitzea, edo zerbitzuak pertsonaren beharrezkoak behar bezala betetzen ez dituela ikusten bada, udaleko gizarte zerbitzuek egoera balioztatu eta proposamena egingo dute, gizarte zerbitzuetako langileek edota, hala badagokio, zerbitzua kudeatzean duen enpresako profesionalak txosten tekniko egokia egin ondoren.

Egindako proposamena onuradunari igorri beharko zaio, eta horrek 15 eguneko epea izango du alegazioak aurkezteko.



Udaleko gizarte zerbitzuetako teknikariek, alegazioak aztertu ostean, behin betiko proposamena egingo diote organo eskudunari, eta horrek ebatziko du, arrazoiak azalduta. Pertsona hori zerbitzutik irtetea ebaztekotan, alternatibaren bat proposatuko da, holakorik egonez gero.

## V. KAPITULUA. ZERBITZUA ETEN ETA AMAITZEA

### 20. artikulua.- Zerbitzua etetea

Honako arrazoi hauengatik etengo da etxez etxeko laguntza zerbitzua aldi batez:

- Erabiltzailea ospitalean badago, sei hilabete baino gutxiagoko epean. Egoera berezietan, epe hori luzatu egin ahal izango da.
- Titularra etxetik kanpo badago, sei hilabete baino gutxiagoko epean. Egoera berezietan, epe hori luzatu egin ahal izango da.
- Onuradunak 11. artikuluan ezarritako betebeharretako bat betetzen ez badu, baina zerbitzua amaitzeko arrazoi nahikoa ez bada.

Zerbitzuaren onuradunak edo haren senideek zerbitzua aurreko paragrafoan ezarritako arrazoiren batengatik aldi baterako etengo dela jakinarazi beharko diete gizarte zerbitzuei.

Onuraduna etxetik kanpo dagoelako eten bada zerbitzua eta eteteko ezarri den epea igarotakoan erabiltzailea ez bada etxera itzuli, zerbitzua amaitzeko arrazoi izango da hori.

### 21. artikulua.- Zerbitzua amaitzea

Honako arrazoi hauengatik amaituko da etxez etxeko laguntza zerbitzua:

- Onuradunak uko egiten badu.
- Zerbitzua emateko epea amaitzen bada.
- Erabiltzailea hiltzen bada.
- Onuraduna beste udalerrri batera badoa, senideren baten etxera txanda betetzera doanean izan ezik.
- Onuradunak beste baliabide bat jasotzen badu, zerbitzua etenda egoteko ezarritakoa baino epe luzeagoan.
- Zerbitzua ematea eragin zuen beharrianaren arrazoi desagertu bada.
- Zerbitzua emateko kontuan hartu diren datuetan zerbait ezkutatu dela edo gezurren bat esan dela ikusten bada.
- Zerbitzua jasotzeko eskatutako betekizunen bat galtzen bada.
- Zerbitzuaren segimendua egiteko eska litekeen agiriren bat aurkezten ez bada.
- Gizarte eta ekonomia egoeraren aldaketei buruzko argibideak aurkezten ez badira egutegiko 15 eguneko epean.
- Kasu bakoitzean ezarritako aldi baterako eteteko epea igarotakoan etxera itzuli ez bada.
- Zerbitzua ematen duten langileei eraso fisiko edo psikologikoa egiten bazaie.





- Arrazoirik gabe, atzeratu egiten bada zerbitzuaren hiru ordainagiri ordaintzen.
- Araudi honetan zehaztutako onuradunen betebeharrak behin eta berriz betetzen ez badira.
- Familia unitatea eratzen duten pertsonak gizarte laneko teknikariarekin edo zerbitzua ematen duten langileekin lankidetzan aritzen ez badira, gizarte laneko zerbitzu teknikoek egoera ebaluatu ondoren.
- Arrisku fisiko edota psikologikorik edo osasun arriskurik badago onuradunarentzat zein zerbitzua ematen duten langileentzat, gizarte laneko zerbitzu teknikoek egoera ebaluatu ondoren.

Organo eskudunaren ebazpenaren bitartez eta udaleko gizarte zerbitzuek proposatuta, zerbitzuaren bajak zehaztuko dira, aurretiaz interesdunari entzunda. Onuradunari eta, hala badagokio, zerbitzua ematen duenari emango zaio ebazpen horren berri.

Zerbitzua amaitzeko ebazpenaren ondoren, onuradunak berriro ere zerbitzuan sartu nahi duela azaltzen badu, beste eskabide bat egin beharko du eta, hori, araudi honetan zehaztutakoaren arabera tramitatuko da.

Zerbitzua amaitu ondoren onuradunak zerbitzuaren ordainketak ordaindu gabe baditu, horiek ordaintzeko eskatuko da, zerbitzua berriro eman aurretik.

## VI. KAPITULUA. ZERBITZUAREN ARAUBIDE EKONOMIKOA

### 22. artikulua.- Etkez etxeko laguntza zerbitzuaren prezioa

Prezioak ethez etxeko laguntza zerbitzuaren emakidari buruzko ebazpenean zehaztuko dira, ondore horretarako ethez etxeko laguntza zerbitzuaren emakidaren prezio publikoa arautzen duen udal zerga ordenantzan ezarriko diren zehaztapenen eta baldintzen arabera. Urtero, hala badagokio, organo eskudunak prezioak eguneratuko ditu, zerga ordenantza horrek agintzen duenez.

Zerbitzua ematen duten langileek eta, hala badagokio, enpresa adjudikaziodunek ez dute dohaintzarik ez ordainketa osagarririk onartuko, aurreko paragrafoan ezarritakoa alde batera utzita.

### 23. artikulua.- Finantzaketa

Honako hauen pentzura izango da zerbitzuen finantzaketa:

- Onuradunak parte hartu beharko du zerbitzuaren finantzaketan, organo eskudunaren ebazpenean ezarritako zenbatekoa ordaintzeko konpromiso sinatua onartuz. Horretarako, dituen baliabide ekonomikoak hartuko dira kontuan eta ezinbesteko baldintza izango da zerbitzua ematen hasteko.
- Etkez etxeko laguntza zerbitzuaren onuradun izanik, besteen beharra duten pertsonen erantzukizun finantzarioa Bizkaiko Foru Aldundiarena izango da esleituta dituen eskumenen eta Basauriko Udalarekin sinatuta dituen akordioei eta hitzarmenei jarraituz.



#### 24. artikulua.- Zerbitzuaren erabiltzailearen ekarpena

Araudi honetan araututako zerbitzuen erabiltzaileak zerbitzuaren kostuaren ehuneko jakin bat ordaindu beharko du, betiere bere gaitasun ekonomikoa kontuan hartuta. Gaitasun hori zehazteko aintzat hartuko da zerbitzuaren onuraduna den pertsonaren familia unitateko kide guztien errenta, baita, hala badagokio, Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legeko familia zaintzeko prestazio ekonomikoa ere.

Erabiltzailearen ekarpena osagai horiek aintzat hartuta eta II. Eranskinean ezarritako baremoaren arabera ezarriko da.

Gaitasun ekonomikoei buruzko datuetan gezurra esan edo daturik ezkatzen bada, eskabidea artxibatu edo zerbitzua amaituko da, jadanik zerbitzua ematen hasi bada. Gainera, horrek ez dio inolako kalterik eragingo gertakari horietatik erator litezkeen erantzukizunei.

Errentan edo familia unitateko pertsona kopuruan aldaketarik egotekotan edo banakako ekarpena ezartzean eraginik izan dezakeen beste edozein inguruabar aldatzekotan, zerbitzuaren onuradunek eta, hala badagokio, haien legezko ordezkariak 15 eguneko epea izango dute udalari jakinarazteko, aldaketa egon denetik aurrera zenbatzen hasita. Eratorritako aldaketa ekonomikoak hurrengo hilabetetik aurrera izango ditu ondorioak.

Erabiltzaile bakoitzaren banakako ekarpena ofizioz berrikusi beharko dute udal teknikariek, edo erabiltzaileak edo bere ordezkariak eskatuta, berau aldatzea eragin lezakeen aldaketarik badago betekizun eta inguruabarretan.

#### **ALDI BATERAKO XEDAPENA.**

Ordenantza hau etxez etxeko laguntza zerbitzua emateko eskabide guztiei erabat aplikatuko zaie, baldin eta indarrean sartzeko unean ebatzi gabe badaude.

Araudi hau eman aurretik Etxez etxeko laguntza zerbitzuaren onuradun zirenen kasuan, espedientea berrikusi egingo da, araudi honetan ezarritakoarekin bat etorriz.

#### **XEDAPEN INDARGABETZAILEA**

Indargabetuta gelditzen dira lerrun bereko edo txikiagoko arau guztiak, araudi honetan ezarritakoaren kontra edo kontraesanean dagoen guztiari dagokionez.

#### **AZKEN XEDAPENAK.**

*Lehenengoa.*- Alkatetza-presidentziak araudi hau zuzen interpretatu, garatu eta aplikatzeko beharrezko jarraibide oro emateko gaitasuna du.

*Bigarrena.*- Araudi hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.



## I. ERANSKINA

### ZERBITZUA JASOTZEKO LEHENTASUN BAREMOA

Jarraian azalduko den baremoak eskatzaileen zerrendarako antolamendu irizpideak eta gizarte diagnostikoaren arabera zerbitzua jasotzeko lehentasuna ezartzen ditu.

Eskatutako zerbitzuak pertsona bati baino gehiagori eragiten badio, zerbitzua jasotzeko baremoa zehazteko asmoz, laguntza behar handiena duen pertsonaren egoera bakarrik balioztatuko da.

Araudi honen 14. artikuluan ezarritakoaren arabera, zerbitzua jasotzeko nahitaezkoa da gutxienez 100 puntu lortzea baremo honetan. Horietatik 30 puntu gutxienez A) Autonomia pertsonala eta B) Etxeko laguntza ataletan lortu behar dira.

### B A R E M O

PUNTUAZIOA

A. AUTONOMIA PERTSONALA / AUTONOMÍA PERSONAL			
→	Bai Sí	Zailtasunez (zailtasun larriak) Con dificultad (serias dificultades)	Ez No
	0 puntu	15 puntu	30 puntu
		<b>ESKATZAILEA SOLICITANTE</b>	<b>BIZIKIDEA CONVIVIENTE</b>
A.1.		<b><u>Ohetik edo besaulkitik laguntzarik gabe altxatzen da</u></b> Levantarse solo/a de la cama o de un sillón	<b>0</b>
A.2.		<b><u>Laguntzarik gabe bere burua garbitu eta janzten du<sup>1</sup></u></b> Realizar su aseo normal y vestirse <sup>1</sup>	<b>0</b>
A.3.		<b><u>Etxean laguntzarik gabe edo ondo moldatzen da gurpil-aulkian</u></b> Andar solo/a en casa o desplazarse convenientemente en silla de ruedas	<b>0</b>
A.4.		<b><u>Etxetik hurbil laguntzarik gabe ateratzen da<sup>1</sup></u></b> Salir solo/a de su vivienda al exterior inmediato <sup>1</sup>	<b>0</b>
A.5.		<b><u>Auzoan edo herrian laguntzarik gabe ateratzen da</u></b> Salir solo/a por el barrio o pueblo	<b>0</b>

<sup>1</sup>Kalera ateratzen da baina ez du kalea gurutzatzen / Sale a la calle, sin atravesarla

**A GUZTIRA  
TOTAL**

### B. ETXKO LAGUNTZA / ATENCIÓN DOMÉSTICA



<b>Bete lauki hau ezin baditu inork etxeko lan hauek egin</b>			
Rellenar este apartado en el caso de que no haya nadie que se pueda encargar de hacer dichas tareas			
→	<b>Bai</b> Sí	<b>0 puntu</b>	<b>Zailtasunez (zailtasun larriak)</b> Con dificultad (serias dificultades)
			<b>15 puntu</b>
			<b>Ez</b> No
			<b>30 puntu</b>
B.1.	<b>Erosketak egiten ditu</b> Realiza las compras	0	
B.2.	<b>Janaria prestatzen du</b> Prepara las comidas	0	
B.3.	<b>Etxea iagon eta arropaz arduratzen da</b> Atiende la casa y cuida la ropa	0	

**B GUZTIRA**  
TOTAL

<b>C. BIZIKIDETZA / CONVIVENCIA</b>	
C.1.	<b>Bakarrik bizi da</b> <input type="checkbox"/> <b>30</b> Persona sola
C.2.	<b>Familia</b> <input type="checkbox"/> <b>(0) Etxean</b> / En casa <input type="checkbox"/> <b>(10) Hurbil</b> / Cerca <input type="checkbox"/> <b>(20) Urrun<sup>3</sup>, ez dauka, interesik ez dauka</b> / Alejada <sup>3</sup> , inexistente, indiferente
C.3.	<b>Auzokide ak</b> <input type="checkbox"/> <b>(0) Laguntzeko prest</b> / Disponibles <input type="checkbox"/> <b>(5) Gutxi laguntzeko prest</b> / Poco disponibles <input type="checkbox"/> <b>(10) Ez dauka, harremanik ez</b> / Inexistentes, indiferentes

<sup>3</sup>Urrun: kontuan hartu familiak egiten dituen bisiten iraupena eta joan-etorrien maiztasuna, ez soilik distantzia.

Alejada: tener en cuenta el tiempo y la frecuencia de los desplazamientos de la familia más que la distancia propiamente dicha.

**C GUZTIRA**  
TOTAL

<b>D. INGURUA / ENTORNO</b>	
D.1.	<b>Habitat</b> <input type="checkbox"/> <b>(0) Herri-gunea edo hiria</b> / Rural agrupado o ciudad <input type="checkbox"/> <b>(5) Herri-gunetik kanpo</b> / Rural disperso
D.2.	<b>Etxebizitzako sarbidea</b> <input type="checkbox"/> <b>(0) Beheko pisua, igogailua</b> / Planta baja, ascensor Acceso vivienda <input type="checkbox"/> <b>(5) Lehen pisua edo sotoa</b> / Primer piso o sótano <input type="checkbox"/> <b>(10) Goiko pisuak</b> / Plantas superiores
D.3.	<b>Dendak</b> <input type="checkbox"/> <b>(0) Hurbil</b> / Cerca Comercios <input type="checkbox"/> <b>(5) Urrun, heltzeko zailtasunak</b> / Lejos, difícil acceso <input type="checkbox"/> <b>(10) Oso urrun edo heltzeko zailtasun handiak</b> / Muy alejados o muy difícil acceso

**D GUZTIRA**  
TOTAL

**E. ETXEBIZITZA / VIVIENDA**



E.1	<b>Instalaciones básicas:</b> (Luz, Agua caliente, sistema calefacción)	<input type="checkbox"/> <b>Bai / Sí (0)</b>	<input type="checkbox"/> <b>Ez / No (5)</b>
E.2	<b>Equipamiento básico</b> (lavadora, nevera, teléfono, ducha, cocina)	<input type="checkbox"/> <b>Bai / Sí (0)</b>	<input type="checkbox"/> <b>Ez / No (5)</b>

**E GUZTIRA**  
TOTAL

<b>F. AUTOZAINZA / AUTOCAIDADO</b>		
	<b>ESKATZAILEA</b> SOLICITANTE	<b>BIZIKIDEA</b> CONVIVIENTE
<u>Eguneroko lanak zailagoak edo ezinezkoak egiten dituzten oroimen-arazo handiak</u> Existencia de trastornos importantes de la memoria que hagan difíciles o imposibles las tareas de la vida cotidiana	<input type="checkbox"/> <b>Bai / Sí (30)</b> <input type="checkbox"/> <b>Ez / No (0)</b>	<input type="checkbox"/> <b>Bai / Sí (30)</b> <input type="checkbox"/> <b>Ez / No (0)</b>

**F GUZTIRA**  
TOTAL

<b>(A+B+C+D+E+F) GUZTIRA / TOTAL</b>	<input type="text"/>
--------------------------------------	----------------------



## **II. ERANSKINA**

### **EKARPEN EKONOMIKOAREN BAREMOA**

#### **A) Onuradunen ahalmen ekonomikoa kalkulatzea:**

Ahalmen ekonomikoa honako balioztatze elementu hauen bidez kalkulatzen da: errenta, eta onuradun kopurua.

- Errenta da familia unitateak edota zerbitzuaren onuradunek guztira jasotzen dituzten diru-sarrera garbien zenbatekoa. Honako hauetatik jaso dezakete:
  - ✓ Lan etekinak, horren barne egonik pentsioak eta gizarte aurreikuspeneko prestazioak, edozein erregimen dutela ere.
  - ✓ Kapital higikor edo higiezinaren etekinak.
  - ✓ Enpresa edo lanbide jardueren etekinak.
  
- Ondorio eta irizpide osagarri hauek ezarri dira:
  - ✓ % 65eko edo gehiagoko minusbaliotasunaren ziurtagiria duten pertsonak eta III. graduko mendetasun handia duten pertsonak: 60 € hilean zerbitzu honen onuradun diren elkarbizitza unitatearen pertsona bakoitzeko.  
(Familia unitate bakoitzean kontzeptu honengatik egin daitekeen gehieneko kenketa 1.440 €koa izango da, urtean.)
  - ✓ Ohiko etxebizitza erosteko eskatutako kredituen interesak eta amortizazioa edo alokairuko gastuak. Urteko gehienez 1.440 euroko zenbatekoa kenduko da.
  - ✓ Etxez etxeko laguntza pribatuko eta/edo eguneko zentroko zerbitzuaren gastuak. Urteko gehienez 1.440 euroko zenbatekoa kenduko da.

#### **B) Erabiltzailearen diru-ekarpenaren zenbatekoa zehaztea**

Etxez etxeko laguntza zerbitzuaren onuradunek zerbitzuaren finantzaketan parte hartuko dute, A) atalean ezarritako ahalmen ekonomikoren kalkuluaren arabera, eta haren ekarpena gehienez zerbitzuaren benetako kostua izanik, hurrengo formulari jarraiki:



$$\frac{\{(^1\text{FUren urteko diru-sarrerak}/12)-(^1\text{FUko kide-kopuruaren arabera, indarreko hileko } ^2\text{OE,)}\} \times 15}{100} = R$$

$$R \times 1 + \frac{(\text{FUri hilean emandako zerbitzuko ordu-kop. guztira})}{100} = \text{Hileko ekarpena}$$

$$\frac{\text{Hileko ekarpena}}{\text{Hilean emandako ordu-kop.}} = \text{Batezbesteko prezioa/ordu arrunteko}$$

<sup>1</sup>FU: Familia Unitatea

<sup>2</sup>OE: Oinarrizko Errenta

Formula horrek Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuagatik familia unitatearen ekarpen ekonomikoa ezartzen du; inola ere ezingo da izan zerbitzuaren kostua baino handiagoa, ez eta zerbitzua eskaintzen duen enpresak udalari ordubetegatik fakturatutako kostua baino txikiagoa ere. Ekarpen ekonomiko hori urtero eguneratuko da, dagokion ordenantza fiskalean finkatuko diren baldintzen arabera, araudi honetako 22. artikuluan ezarritakorekin bat etorritz.